

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

3610 *Hutsen zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 6/2013 Errege Lege Dekretua, martxoaren 22koa, aurrezteko eta inbertitzeko produktu jakin batzuen titularrak babestekoa eta beste zenbait finantza-neurriren gainekoa.*

Hutsak aurkitu dira aurrezteko eta inbertitzeko produktu jakin batzuen titularrak babesteko eta beste zenbait finantza-neurriren gaineko martxoaren 22ko 6/2013 Errege Dekretuaren euskarazko bertsioan. Errege lege-dekretu hori Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2013ko martxoaren 23ko alean, 71. zenbakikoan, argitaratu zen, eta honen bidez honako zuzenketa hauek egiten ditugu:

3. orrian, zioen azalpeneko IV. ataleko seigarren lerrokadan, azken eta azken-aurreko lerroetan, hau dioen lekuan: «...aseguruak kontratatze agentziak ahaldundu...», honako hau esan behar du: «...suskripzio-agentziak ahaldundu...».